

ANITURRI

Ikastetxearen Elkarbizitza plana



2022ko ekainaren 30ean onartua

Aurkibidea

1. Sarrera

- 1.1. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua 2
- 1.2. Elkarbizitza Plana prestatzeko jarraitutako prozesuaren deskribapena. 2
- 1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura 3

2. Elkarbizitzaren definizioa

- Nolako elkarbizitza nahi dugu? 4
- Zer balio sustatu nahi ditugu?

3. Helburu orokorrak 4

4. Elkarbizitza-helburuen lorpena sustatzeko egiturak

- 4.1. Elkarbizitzaren Behatokia 6
- 4.2. Bestelako egiturak 6

5. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak

- 5.1. Jarduteko irizpide orokorrak 7
- 5.2. Jarduteko ildo orokorrak 8

6. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena 15

7. Zabalkundea

- 7.1. Elkarbizitza Planaren zabalkundea 15
- 7.2. Urteko helburu eta jardueren zabalkundea 16
- 7.3. Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentziorako planaren zabalkundea 16

8. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa

- 8.1. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa 16
- 8.2. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapenaren ebaluazioa 17

1. Sarrera

1.1. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua

Aniturri BHI ikastetxeak **10 urte** baino gehiago daramatza elkarbizitzarekin lotutako gaiak garatzen eta lantzen eta lehentasunezko lan-ildo bihurtu dugu, gure hezkuntza komunitateak hala iritzita.

Honako hauek dira orain arte landu ditugun zenbait gai: ikastetxeak ikasle, irakasle eta familientzat egin duen harrera plana eta ikastetxeko antolakuntza eta jarduera araudia (AJA). Horretaz gain, antolatzen diren aldian aldiko hainbat beharretarako, elkarbizitza sustatzeko eta gatazkak konpontzeko prozedurak/protokoloak ditugu.

Bestalde, Hezkidetza planari ekin diogu. 3 urtetan garatu genuen Hezkidetza Lehen plana (2017-2020) eta 2022-2024 ikasturteetan berrituko dugu, Euskal Hezkuntza Sistemarako Hezkidetzako II. Planaren arabera ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezan sustatzeko, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz. Horregatik, elkarbizitzan eta berdintasunezko harremanetan jarriko dugu indarra.

Gaur egun, ikasleek ikastetxeko bizimoduan modu aktiboan parte hartzen dute eta ikasleen bizikidetzaz-hezkidetzaz batzarra dago, aldizka biltzen dena, gatazkak planteatzeko eta soluzioak bilatzeko. OGrako partaidetza ziurtatzeko, hauteskunde-kanpainak antolatzen ditugu ikasgelako ordezkari izateko hautagaien artean.

Irakasleen eta familien partaidetza Ordezkaritza Organo Gorenean oso positiboa da eta oso aktiboa, baina gatazkak gertatzen direnean bakarrik.

Bukatzeko, irakasleak ez diren langileek parte aktiboa dute ikastetxearen kudeaketan. Ikasturtean zehar hainbat koordinazio-bilera egiten dira, hainbat gai eztabaidatzeko eta lantzeko. Ikastetxearen helburua da irakasleak ez diren langileen lana ikasleek baloratzea eta errespetatzea; horretarako, autobusetan gertatutako arazoak ikastetxean konpontzen ditugu, baita garbitasunaren inguruan dauden arazoak ere arduratzen gara.

1.2. Elkarbizitza Plana prestatzeko jarraitutako prozesuaren deskribapena.

Elkarbizitza plana egiteko ekimena zuzendaritza-taldean sortu zen 2017-2018 ikasturtean, ikasgelako elkarbizitza-arazoei heltzeko irakasleek estilo desberdinak zituztelako. Arazo horiei aurre egiteko, Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia baino esparru zabalago batean koherentziaz ekiteko beharra gailendu zitzaion arauen berrikuspen soilari, eta asmo handiko proiektu bihurtu zen. Zuzendaria izan da hasieratik proiektuaren buru, eta batzorde bat izendatu du prozesuaren plangintza egin eta dinamizatzeko.

Elkarbizitzarekiko sentsibilizazioa eta hobekuntza aukeren gogoeta egite aldera, funtsezko honako alderdiei heldu genion: elkarbizitza-kontzeptuari, diziplinari; araei; familia eta inguruarekiko harremanari; hezkuntza emozionalari edota enpatiari. Horretarako, 2018-2019 ikasturtean, PEG ekimenaren barruan, Elkarbizitzarako konpetentzia ikastaroa antolatu genuen eta klaustro osoak jaso zuen.

Diagnostikoa egin genuen gero: zer gertatzen den, zergatik gertatzen den, zer hobetu behar dugun eta zer lortu nahi dugun aztertzen da. 2017ko apirilean inkestak egin genizkien irakasleei, ikasleei, familiei eta irakasleak ez diren langileei. Elkarbizitza-eredua finkatzeko, plan honen oinarri diren printzipioak antolatzeko, helburuak eta oinarrizko jarduera-ildoak aukeratzeko sailkako bilerak antolatu genituen 2018-2019 ikasturtean. Ikasturtearen amaieran, Elkarbizitza Plana onartua izan zen: Ikasgela bakoitzeko ordezkariak bere taldeari aurkeztu zion plana eta onartzen zuten edo ez bozkatu. Zuzendariaren lana izan zen 2018ko ikasturtean klaustroari eta Eskola Kontseiluari aurkeztea. Zabalkundea ere egin zen eta Hezkuntza komunitate osoari eman zitzaion planaren berri. Guztiei eskatu zitzaion proposaturiko helburuak lortzeko konpromisoa.

2021-2022 ikasturtean, Elkarbizitza plana berriro dugu 2022-2023 egin behar dugun II Hezkidetza-planari egokitzeko.

1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekin duen lotura

Lotura handia du Elkarbizitza plan honek ikastetxeak martxan dituen gainerako planekin.

Hasteko, gure Hezkuntza Proiektuan dauden lau ildo estrategikoetatik, horietako biei zuzen dago lotuta lotuta. Lehenengoan: *Ikasle bakoitzaren izaera kontuan hartuta, beronen etorkizuna eraikitzen lagundu, kalitatezko heziketa eman*; eta laugarrenean: *Ikastetxeko kideen arteko elkarbizitza hobetu*.

Bestalde, Ikastetxeko Urteko planaren laugarren helburuarekin, bereziki dago estu lotuta gure Elkarbizitza plana: *Gatazkei modu eraikitzailean eta hezitzailean erantzuteko, Elkarbizitza planarekin jarraitzea*; eta, batez ere, hirugarren helburuarekin ere: *Giza baloreak (giza eta kultura aniztasuna, osasuna, berdintasuna eta genero aniztasuna) zehaztu eta transmititzeko, Hezkidetza proiektua garatzen jarraitzea eta ikasleen alderdi emozionala lantzea*

Ildo beretik, Hezkidetza proiektu berria abian dago bizikidetzako helburu garrantzitsu batekin bat datorrena: *ikastetxeek beren kulturen, politiketan eta jardunbideetan genero ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz*

Azkenik, Tutoretza planaren helburuarekin ere hertsiki lotua dago: eskola-eginbeharren esparruan ikasle bakoitzak bere gaitasuna deskubritu eta garatzen laguntzea, baita etengabeko errealizazio pertsonal eta soziala erraztea. Eta aurreko

guztia posible izango dela ziurtatzeko, Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) lotuta dago Elkarbizitza planak dituen helburu guztiekin.

2. Elkarbizitzaren definizioa

Elkarbizitzaren definizioa gure komunitateak elkarbizitza eta ongizateaz ulertzen duena da, eta bera osatzen duten sektore guztiak konprometitu eta bakoitzaren iritzi eta ikuspuntuak jasotzen ditu, irakasleak, ikasleak, familiak, zerbitzu eta administrazioako langileak edota ikastetxearekin harremana duten bestelako erakunde edo pertsonak.

Aniturri Institutuan abiapuntu eta ildo nagusi gisa ditugun baloreak eguneroko bizitzara eramaten saiatzen gara, momentu eta modu askotan. Gure balore eta abiapuntuak honakoak dira:

- Elkarbizitzarako denon ardura eta konpromisoa guztion arteko errespetua eta tolerantzia sustatzea; horretarako, sentikortasuna, zintzotasuna eta egiazaletasuna baloratzen dugu, gure artean adiskidetasuna lortzeko.
- Hezkuntza eginkizunean ikasleen partehartze aktiboa sustatzen dugu lanerako ohitura eta jakinmina bultzatuz. Ikasleak beren buruaren jabe, libre, arduratsu eta kritikoak nahi ditugu, gizarteko bidegabekerien aurrean kontzientzia eta elkartasuna piztuz.
- Euskara da gure komunikazio hizkuntza eta bere erabilera sustatuko da, Euskal Herriko errealitate eta kulturarekiko arreta berezia eskainiz eta beste kulturak ezagutzeko jarrera irekia sustatuz.

3. Helburu orokorrak

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan dauden ildo estrategikoak kontuan hartuz, hauek dira helburu orokorrak eta espezifikoak, eragin esanguratsuena duten alderdiak kontuan izanik.

a) Elkarbizitza-giroarekin eta Ikaskuntza emozionalarekin loturiko helburuak

1. Eskola komunitatean, elkarbizitza-giroa nagusi izatea, duintasunarekiko errespetua bultzatuz.
 - 1.1-Ikastetxeak bere kulturen, politiketan eta jardunbideetan gatazken ebazpen baketsuak txerta dezan bultzatzea.
 - 1.2- Tutoretza eta orientazio planetan gatazken ebazpen baketsua txertatzea, Ikaskuntza emozionari lekua emanez.
 - 1.3. Gatazken konponketa baketsua sustatzea, gatazkak gestionatzen ikasiz.
2. Gatazken ebazpen baketsua sustatzea.

2.1. Ikasleen batzarretan gatazken tratamendu baketsua egitea.

b) Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak

3. Inplikazioa eta partaidetza lortzeko, gure irakasleei prestakuntza ematea.
 - 3.1 Irakasleak eta hezkuntza-komunitatea trebatzea, bere esku-hartzea. gatazken ebazpen baketsua aintzat hartuz egingo dela bermatzeko.
4. Egiten ari garen bizikidetzaren aldeko lana eskola-komunitate osoari zabaltzea, ekimen honetan guztiok batera aritzeko.
 - 4.1. Elkarbizitza behatokia sustatzea.
 - 4.2. Guraso, ikasle, irakasle eta irakasle ez diren beste langileek elkarrekin lan egitea.
5. Beste ikastetxeekin eta beste hezkuntza eragile batzuekin elkar lanean aritzea.
 - 5.1 Beste ikastetxeekin esperientziak trukatzeko.
 - 5.2 Hezkuntza sailaren laguntza lortzea.

c) Hezkidetzarekin loturiko helburuak

6. Hezkidetzarekin loturik, mutilen eta nesken, garapen pertsonala ahalbidetuko duten berdintasunezko harremanak bermatzea.
 - 6.1. Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko plan berria egitea 2022-2024 urteetan.
 - 6.2. ikastetxeak beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero ikuspegia txertatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz.

d) Baloreekin loturiko helburuak

7. Gure baloreei loturik, indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.
 - 7.1 . Eskola komunitatea sentikor bihurtu indarkeriaren ondorioz gizartean bizi dugun egoera jasanezinaren aurrean.
 - 7.2 indarkeria mota guztiei azkar eta eraginkorki erantzuteko mekanismoak aplikatzea.

e) Kulturartekotasunarekin loturiko helburuak

8. Curriculumeko arlo eta irakasgai guztietan elkarrekin bizitzen ikasteko, irakasleek gaitasunaren zenbait alderdi zeharka landu, balioetsi eta ebaluatzea lortzea.
 - 8.1. Kulturartekotasunari garrantzia ematea.

4. Helburuen lortzea bermatzeko egiturak

4.1. Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia OOG-eko guraso, ikasle eta irakasleek osatzen dute. Gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeko baliabidea dugu. Eskola-jarduera hobetu nahi izango du, elkarbizitzaren ebaluazioa eta diagnostikoaren bidez. Konpromisoa hartzen dugu sistematikoki datuak jasotzeko, honako gai hauei buruz:

- a) Ikasleen arteko gatazkak. Liskarrak (zein leku eta unetan eta nolakoak), eskola jazarpena (zenbat aldiz, sorburuak, tipologia, erabilitako bitartekoak...)
- b) Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak. Zenbat aldiz, zein taldetan, gatazka mota. Erreklamazio akademikoko izaera badu, jatorria aztertu.
- c) Gurasoek parte hartzen duten gatazkak. Zenbat aldiz eta zein motatakoak.

Aldi berean, honako hau ere egiten dugu:

Sistematikoki ikastetxeko elkarbizitzaren inguruko datuak bildu eta aztertzea. Horietan oinarrituta, arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatzea eta, egokia bada, prestakuntza jarduerak proposatzea. Ikastetxeko elkarbizitzarako araudia aztertu eta hobetzeko prozesuak proposatzea.

Elkarbizitza positiboa bultzatzeko ekimenak proposatzea: kanpainak eta gatazkak ebazteko lantegiak proposatzea, bitartekaritza eta neurri zuzentzaileen bultzada,

Urteko planeko elkarbizitza hobetzeko helburuak proposatzea. Elkarbizitza eta Hezkidetza Planen garapena eta balizko aldaketak ebaluatu eta hobekuntzak proposatzea.

Edonola ere, Elkarbizitzaren Behatokiak, aurreko ikasturteko ebaluazioa oinarritzat hartuta, hurrengo ikasturterako helburuak eta ekintzak proposatuko ditu, eta aurreikusitako ekintzak planifikatu, antolatu eta praktikan jarriko ditu. Ekintza horiek Ikastetxeko Urteko Planean jasoko dira.

Horrez gain, Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Planaren arabera, ikastetxeetako Elkarbizitzaren Behatokiaren lana izango da prebentzioaren, genero-indarkeriaren eta sexismoaren ondorio diren genero-indarkeria eta edonolako indarkeriaren inguruko alderdiak.

4.2. Ordezkaritza Organo Goreneko (OOG) hezkidetza-ordezkaria.

Ikastetxean, zuzendaritza taldeak izendaturiko klaustrokide bat dago hezkidetza-eredua bultzatu eta sustatzeko, eta Ordezkaritza Organo Goreneko edota Eskola kontseiluko pertsona aditu bat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-

neurriak bultzatzeko. Pertsona horrek ikastetxea genero-berdintasuna ziurtatuko duen inguru bihurtzeko ekintzak sustatuko ditu; ikastetxeak garatzen dituen ekimen, proiektu eta programen koherentzia bermatuko du, genero ikuspuntuaren arabera, eta Elkarbizitzaren Behatokiari proposamen integratzaileak aurkeztuko dizkio.

4.3. Elkarbizitza batzordea

Zuzendariak, orientatzaileak eta hezkidetzako arduradunak osatzen dute Elkarbizitza batzordea. Elkarbizitzaren Behatokian sortzen diren erabakiak eta proposamenak garatzeko, edota elkarbizitzaren egunerokotasuna kudeatu eta dinamizatzeko ardura du.

Funtzionamendua AJAn jasotzen da

4.4. Ikastetxeak zehaztutako bestelako batzorde, lantalde edo egiturak

Ordezkarri batzordea eta berdintasuna edo hezkidetzatza batzordea urtero eratzten dira.

DBH eta Batxilergoko ikasle eta irakasleak biltzen dira ikasturtean zehar Elkarbizitza-Hezkidetzatza Batzordean. Ikasle eta irakasleek beren kezka eramaten dituzte bertara, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko. Gai asko jorratzen dira: ikasle-irakasle harremanak, proposamen zehatzak, egin beharreko konponketak edo garbiketak, ikasleen artean sortzen diren arazoak, ...

Geletako ordezkariek gainontzeko ikasleen kezka jasotzen dituzte eta gero Elkarbizitza-Hezkidetzatza Batzordearen bileretan hitz egin eta erabaki denari buruzko informazioa gelara eramaten dute. Ikasle guztiek dute Elkarbizitza-Hezkidetzatza Batzordearen bileren berri.

Oso tresna baliotsuak dira eguneroko dinamika partehartzaile eta zabala lortzeko. Ikasleek berea plazaratzeko esparru bat bertan dute eta irakasleekin edozein gairi buruz hitz egiteko, modu antolatuta batean. Guztion adostasunean, ahal bada, erabakiak hartzen dira.

5. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak

5.1. Jarduteko irizpide orokorrak

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko honako irizpideok:

Lehenik, **Koherentzia** behar dugu gure mezuak sinesgarriak izango badira. Ikasleok errespetatuak eta onartuak sentitu behar dira, haiei errespetua eta onarpena eskatu behar badiegu. **Baloreak biziz** transmititzen dira, ez hainbeste hitzez. Horregatik irakasleon ereduak gure baliabiderik eraginkorrenetakoa da. Arazoen aurrean **ikuspegi hezitzailea** hobetsiko dugu, gure irakasle funtzioarekin bat datorrena: ikasleak heziz doaz eta gure laguntza behar dute gogoeta egiteko, konpromenezkoak hartzeko eta erabakiak hartzeko. **Enpatia** derrigorrezkoa dugu elkarbizitzaren inguruko erabakiak hartzeko eta jarrera zabala behar da beste pertsona, bera dagoen lekutik eta bizi duen errealitatetik dituen kezkek eta beharrak ulertzeko.

Bigarrenik, prozedura desberdinekin bultzatuko dugu parte hartzea eta konpromezua, ikastetxea guztiok propio sentitzeko eta inplikazio eraginkor positiboa bideratzeko. Elkarbizitza gestionatzeko **guztion partaidetza** da lehen urratsa, guztion borondatean oinarritzen baita, neurri handi batean, elkarrekiko hartu-emanaren estiloa. Institutua **ikasleak heitzeko esparrua** da, bai ikasgaietako eguneroko lanean, baita beste jarduera eta harremanetan ere. Garrantzitsua da ikasleak institutuan garapen pertsonal eta sozialerako bideak aurkitzea, eta horretarako beren **parte hartzea** beharrezkoa da. **Komunikazio esparruak** eta zubiak funtsezkoak dira elkarbizitzaren gora-beheretan esku hartze izateko. Guztiok eduki behar ditugu bideak kritikak egiteko, proposamenak bideratzeko... Komunikazio esparru hauek estabilitatea behar dute, ohitura bihurtzea garrantzitsua da. Esparru hauek formalak eta ez-formalak izan daitezke.

Bukatzeko, **arazoak eta tirabirak** egongo direla dakigunez, arazoen muinaz gain, arazo hori **bideratzeko prozedurak** landuko ditugu bereziki, jarrera eta portaeretan eragin nahi badugu. Arazoei nola egiten diegun aurre definituko du gure jardun pedagogikoa, ez hainbeste arazo horien edukia.

5.2. Jarduteko ildo orokorrak

Aniturrin bereziki lantzen diren alderdiak. Hau da, ikastetxeko elkarbizitza positiboa sustatzea, elkarbizitzarako oinarritzko arauak urratzen diren egoeretan hezkuntza-erantzuna ahaztu gabe.

1. multzoa. Estamentuen arteko zein barruko elkarbizitza sustatzeko ekintzak.

Eskola-komunitate osoko kideen arteko harreman positiboetan oinarrituriko elkarbizitza-giroa sustatzeko ekintzak egiten ditugu, baita bera lortzeko guztien inplikazioa, partaidetza eta konpromisoa ere.

a) Elkarbizitza positiborako, eskola-komunitate osoaren sentsibilizazioa eta inplikazioa erraztera bideratutako ekintzak

- Komunikazio-bideak eraginkorrak izatea

- Harrera protokoloa inplementatzea, estamentuen artean kastetxeko partaide direlako sentimendua handitzeko.
 - Elkarbizitza behatokia eta OOG aktibo eta eraginkor mantentzea, Hezkuntza-komunitate osoaren adostasuna eta parte-hartzea bermatzeko.
 - Ikasleen ordezkarien batzordea urtero osatzea arauak prestatzen, gatazkak modu egokian kudeatzen eta elkarbizitza kudeatzen ikasleen parte-hartzea sustatzeko
 - Kanpainak egitea, familien parte-hartzea sustatzeko
 - Familia mota guztien inklusioa sustatzea, aldizkako sentsibilizazio ekintzak eginez; LGTBQ familiak, adibidez.
- b) Ikastetxean elkarbizitza-giro ona lortzera bideratutako ekintzak::
- Tutoretza planean ikasgelako taldean kohesioa eta ikastetxeko partaide direlako sentimendua sortzeko ekintzak egitea, pertsonen arteko harreman positiboak sustatzeko,
 - Ikastetxeko jaialdia urtero egitea, irakasle eta ikasleen arteko harremanak hobetzeko.
- c) Elkarbizitza positiboari buruzko hezkuntza-komunitate osoaren kultura eta hizkuntza bateratu bat lortzeko prestakuntza-ekintzak egitea: cyberbullying-ari buruz, adibidez.
- d) Banakako eta taldekako tutoretza-ekintzak egitea elkarbizitza, egiturazko indarkeria eta gizarte-berdintasunaren eragileen ezagutza, *bullying* eta *ciberbullying-a*, eta gizarte-berdintasunarekin loturiko gaiak jorratzeko.
- e) Arlo askoko irakasleek Bakea eta elkarbizitza baketsurako hezkuntza eta balioetan prestatzeko ekintzak egitea ikasgelan.
- f) Talde-lana sustatzen duten eta aniztasuna kontuan duten curriculum eta metodologiazko ekintzak geroz eta gehiago aplikatzea.
- g) Aniztasunari erantzuteko plana inplementatzen jarraitzea inklusioa, ongizate emozionala eta guztien hezkuntza-arrakasta ziurtatzeko: kide izatea, ikastearekiko motibazioa, metodologia-aldaketak, ikuspegi inklusiboa, etab

2. *multzoa*. Gatazken hezkuntza-kudeaketa, kontziliazioa eta konponketa errazteko eta elkarbizitza-konpromisoak sortzeko ekintzak.

a) Gatazkak etikoki kudeatzen ditugu.

Ikastetxean ikasle-irakasle erlazioak zaintzea funtsezkoa da; egunero eta hasieratik egin behar garrantzitsuenetakoa dugu hau. Aniturrin lehentasuna ematen diogu gure giroari, ikasleekiko harremanak hurbilak, konfiantzazkoak eta

errespetuzkoak izan daitezzen. Horrela, eguneroko elkarbizitza egokiaz gain honakoa lortu nahi dugu:

- Ikasleek eredu argi eta koherentea izatea irakaslearen jarreraren eta portaeran. Errespetua, hurbiltasuna, ardura, hitz hutsez ez dira irakasten, eguneroko dinamikan txertatuz baizik. Guk beti errespetua erakusteak izugarri errezten digu errespetuaren eskaria ikasleei egitea.
- Ikas-irakas prozesua bultzatu, komunikazioa erreza eta konfidantzazkoa denean hobeto eta gehiago ikas-irakas baitaiteke, guztiontzako modu aberasgarri eta atseginago batean.
- Edozein gatazka edota arazo sortzen denean ez da erortzen hutsera, aurretik bilatutako erlazio sare batean baizik. Gure erlazio sarea kalitate onekoa bada, hartu beharreko aukerak, arazoak eduki dezakeen garapena, askoz egokiagoak izango dira eta konponbide posibleetarako ate gehiago izango ditugu zabalik.

Irakasleok gara ikasle-irakale harremanak bideratu behar ditugunak eta hauek dira gure irizpide orokor batzuk:

- Ongi burutu egin beharra: ordukotasuna zainduz, lanaren planifikazio egokia eramanez, klaseak garaian bukatuta (ez lehenago) ...
- Argi azalduz ikasleei zer egin behar duten eta nola
- Agertu beti prest laguntzeko ikas-irakas prozesuan
- Entzun ikasleei eta kontuan hartu haien dudak, eskariak eta beharrak. Ikasleen egoera ulertzeko beren lekuan jartzen saiatu: hortik errezagoa izango zaigu gure eskariak eta ikasgaiaren beharrak ikasleei adieraztea
- Honen ildotik, galdetu, eskatu iritzia, gaiez eta ikas-irakas prozesuari buruz, bi aldeetako komunikazioa bermatzeko eta helburu komunak bideratzeko
- Ez mehatxatu, ez iraindu, ez utzi barregarri ikasleak
- Ikasleen arteko diferentziak errespetatu, maila, erritmo, izaera desberdinak dituzte. Konparazioak gutxitan dira lagungarriak.
- Ikasleak heziz doazen pertsonak direla ongi barneratzen badugu, errezago ulertuko ditugu eta ikusiko dugu nola lagundu momentu bakoitzean

Hala ere, ikasleren batek geure onetik ateratzen gaituenean hobe genuke lasaitasunari eustea, noski. Ikasle batek portaera desegokia duenean ere, ohartarazi modu argiz baina beti ere errespetuz, argi utziz zein den portaera desegokia eta horren eragina. Ikasle batek gelan asko haserretzen gaituenean, jendaurreko eztabaida zuzen eta zakarrak ekidinez

Hemengo irizpideak egokiak izan daitezke ikasleren baten portaera desegokiaren aurrean:

- Gaiaren garrantzia ondo neurtu behar da, ez baitaiz beti bat arazoaren garrantzia eta eragina batetik eta gudan eragiten duen haserrea bestetik.

- Momentuan garrasika hasiz gero, nekez konpontzen dira gauzak eta bai, ordea, zeharo konplikatzen zenbaitetan.
- Ez da inola ere komeni ikasleekin ika-mika jardutea, eta are gutxiago beraiei modu sarkastikoz edo iraingarriz (barregarri uzteko asmoz) aritzea.
- Arazoa sortu duen ikasleari esan behar zaiona berari esan, ez publikoki, beti ere errespetuz.
- Klasea amaitutakoan, ikaslearekin hitz egin behar genuke arazoa konpontzearen, eta geroago tutoreari jakinarazi.
- Ikasle kanporaketa aparteko neurria da (ez ohikoa); orduan, zuzendaritzara eraman ikaslea.
- Orduan, kasua aztertuta, dagozkion neurriak erabakiko dira, hartara ikasleek argi eta garbi jakin dezaten hasiera-hasieratik errespetu falten eta, oro har, jokabide desegokien aurrean sistematikoki arazoari heldu eta erantzuna emango diogula.
- Ez dezagun problemen aurrean ez-ikusiarrena egin

Ikasle baten portaera desegokia denean gure jarrera funtsezkoa da: gure lekuan bagaude, arazoari heltzen eta errespetuz jokatzeko, asko dugu irabazia geroko. Ikasleengan gogoeta kritikoa sortu behar dugu beren portaeraz: zer nolako eragina duen gelan, ikaskide(ar)engan, irakasle(ar)engan; hau ez dugu lortuko ikasle horrek autoritate moralik onartzen ez badigu. Autoritate moral hori zaintzen dugu ikaslearekiko errespetuzko jokaera dugunean. Gainontzeko ikasleen aurrean, gainera, oso argi egon behar du nork duen portaera desegokia eta hori ez dute definituko gure hitzek, gure jarrera eta gure jarduna baizik. Bestalde, eskolako arazoek konponbideak askoz errezagoak dira helduok gure lana egoki betetzen dugunean.

b) *Bitartekaritza lantzen dugu.*

Askotan bitartekaritza beharrezkoa da. Gure institutuan, ohiko arazoei irteera emateko daukagu bitartekaritza bideratzeko modu desberdinak:

Tutorea lehen mailako bitartekaria da, baita Elkarbizitza Batzordea ere heltzen zaizkion arazoetan eta zuzendaritzako kideak. Beste bitartekariren bat ere egon daiteke egoerak eta baldintzek hala eskatuko balute (irakaslea, ikaslea, gurasoa...) Gure ohiko prozedura honakoa da. Bakoitzari entzun: nola sentitzen den eta zergatik; entzun, hitz egin, gauzak argitu eta askotan ere idatziz jartzea eskatu egiten zaio (objektibatu egiten da). Gero, bigarren momentu batean enpatia lantzen da, galderen bidez, ... (bestearen ikuspuntuak ezagutarazi)

Konponbiderako urratsak:

Inplikaturakoei eskatzen zaie espresatzeko (idatziz edo ahoz) zer dauden prest egiteko arazoa konpontzearen, zer proposa dezakete beren aldetik (ez hainbeste zer eskatuko litzaiokeen beste aldeari)

Hortik bilatzen da adostasun-konpromezua alde bion artean

Jarraipen moduak adosten dira eta jarraipena egiten da konpromezuen betetze maila bermatzeko

3. *multzoa*. Elkarbizitza positiboarekin bat ez datozen jokabideak berriro bideratzeko ekintzak

Neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedurak baditugu. Hezitzaileak garen heinean, portaera desegokia aukera bat da ikasleak hezitzeko; baliabide eta balore pertsonalak lantzeko bidea irekitzen digu egoera honek. Horregatik, gure helburuak hauek dira:

- Portaera desegokiari buruzko gogoeta ikaslearengan sortu
- Egindakoa onartzetik elkarbizitza egokia berreraikitze bidea jarri
- Konpentsatu, ahal den neurrian, egindako kaltea

Zuzendaritza eta tutoretzatik erabiltzen ditugun estrategiak, hori guztia lortzeko, honakoak dira:

- Hitz egin, behin eta berriro, ikasle horiekin. Elkarrizketa horien helburuak honakoak dira:
 - Ezagutu honelako portaeren arrazoiak/atzean legozkeen arazoak
 - Egindakoaren larritasuna eta beste pertsonengan dituen horren ondorioak ikasleari azaldu; institutuko elkarbizitzan, gelako lanean... honelako porterak onartezinak direla ulertarazi
 - Enpatia landu, beste ikasle/irakaslearen lekuan jarriz
 - Egoerari irteera emateko ikaslearen proposamenak eta asmoak bideratu
- Idatzizko gogoetak eskatzen zaizkie, eduki duten portaera azalduz eta horren inguruko balorapena eginez
- Eginiko kaltea konpondu edo leuntzeko egin dezaketena eskatzen diogu kaltea sortu duen ikasleari:
 - Kalte materiala izan bada, dagokien ordainketa eskatzen zaie apurketaren eragileei
 - Institutuaren mesederako beste lanak (garbiketa, adibidez) eskatzen zaizkie, egindako kaltea konpentsatzeko
 - Pertsona bat sufritu edo mindu bada, azalpena eta barkamen eskaera (idatziz zein ahoz) eskatzen zaio ekintza desegokiaren eragileari
- Gelatik baztertzea ordu batzuetan, irakasle gelan bidalitako lana betez. Kasurik larrienetan beste baztertze neurriak ere erabiltzen dira
- Konpromezuak erabiltzen ditugu, portaera eta jarduera zehatzak eskatzen dizkiegu, bete beharrekoak eta noizero ebaluatuko direnak. Prozedura hauek idatziz zein ahoz burutzen ditugu

- Portaera bat zuzentzen denean edota aurrerapausuak ematen direnean onartu eta baloratu egiten dizkiegu ikasleei

Ikastetxez aldatzeko proposamena salbuespena litzateke gure institutuan. Edozein kasutan Eskola Kontseiluak berrikusi beharko luke espedientea hasteko.

Eskola-jazarpenaren esparruko egoerei dagokienez, Estrategia nagusia prebentzioa da, eta honetan hauek dira gure helburuak:

- Barne diskurtsoa sortu gure arteko erlazio eta errespetuaren inguruan, jazarpenarren atzean dauden jarrerak onartzen ez dituen
- Giroa zaindu honelako erasoak ikasleek lekuz kanpo sentitzeko (Dokumentu honetan jasotzen diren prozedurak, patio zaintzak, arreta pasabideetan, Elkarbizitza Batzordeak ...)
- Prozedurak ezarri, laster antzemateko eta guztion artean aurre egiteko (Elkarbizitza Batzordeak, tutoretza lanaren jarraipen hurbila, ...)

Hala ere, honelako kasu baten aurrean, ezarritako protokoloa jarraituko dugu, prozedura zehatz-mehatz jarraituz, informazioa ongi gordez eta dagokion jarraipena eramanez. Honela egin dugu orain arte ere.

4. *multzoa*. Berariazko planen prestaketa eta garapena

a) **Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko proiektua.**

Aniturri institutuko Hezkuntza Proiektuan, Hezkidetza proiektua barneratuta dago, elkarbizitzarekin batera. Gure Hezkuntza Proiektuaren Lehen Helburua, berdintasunean hezitzea da eta, asmo horretan, Laugarren Ildo Estrategikoan, Elkarbizitza eta Hezkidetza programak txertatuko direla zehazten da.

Aniturri ikastetxeak, eskola mistoa berdintasuneko eta genero-indarkeriari zero tolerantziako balioak sustatuko dituen hezkuntza-eskola bihurtu nahi dugu.

2018-2021 aldian garatu genuen gure Hezkidetza plana. 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako, hezkidetza eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu global, sistematiko eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektua dugu. Lehen planaren jarraipena da proiektu hau, eta plan horren esperientzia eta balorazioa hartzen dira erreferentzia gisa, baina EAE-ko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza-planaren esparruan kokatzen da; izan ere, tresna eta erreferentzia berriak ditugu, eta horiek aintzat hartu behar dira bizikidetza positiborako, aniztasunaren baliorako eta pertsona guztientzako errespeturako espazioa planteatzeko orduan. Hezkidetza elementu nagusia da,

genero-aurreiritziak eta -estereotipoak gainditzeko; era berean, ikastetxea espazio egokia da, ikasle guztiak dauden sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuan sozializatzeko. Eskola funtsezko eragile sozializatzailea denez ikastetxea ezinbestekoa da ikasleen artean botere-harremanak eraldatzen laguntzeko. Gure premiak zehaztuko ditugu Hezkidetzaren Zutabe Nagusien arabera: pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, emakumeen jakituriaren integrazioa eta haien ekarpen soziala eta historikoa, gatazken eraldaketa baketsua, emakumeen autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa, espazioak ikastetxean, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak, berdintasuneko hezkuntza afektiboa eta sexuala eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku hartzea.

b) **Hainbat alderdi lantzeko berariazko planak**

Hala nola, orientazio plana eta tutoretza plana aniztasunari arreta ematen diotenak.

5. multzoa. Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaeraren jarraipenerako prozedurak

Elkarbizitza plan hau garatzeko ardura eskola komunitate osoak du eta Bizikidetzaren Behatokiaz gain institutuko beste talde eta pertsonak arituko dira ezarritako helburuak lantzen (irakasleen formakuntza taldea, Elkarbizitza Batzordea, Guraso Elkarteak ...)

Diseinatutako ekintzek **Ikastetxearen Urteko Plana** osatzen dutenez, elkarbizitza positiboarekin loturiko helburuak kontuan izaten dira. Ekintzak garatu ondoren, urteko helburuak aztertu eta lorpen mailaren ebaluazioa egiten da, erreferentziatzat dagozkien adierazleak hartuta. Ebaluazio hori, dagozkion ondorio eta hobekuntza proposamenekin batera **Ikastetxearen Urteko Planaren Memoriam** jasotzen da, eta kontuan hartzen dira hurrengo ikasturteko Ikastetxearen Urteko Planeko elkarbizitza-helburuak prestatzean.

6. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena

Elkarbizitza Planeko helburuak lortu ahal izateko, urtero zehaztapen bat egiten dugu pixkanaka urtean zehar gauzatu beharreko helburuak eta ekintzak finkatzeko. Plangintza hori Ikastetxeko Urteko Planean jasotzen da.

Elkarbizitza-helburu bakoitzeko, abiarazitako ekintza bakoitzaren eraginkortasuna

jakin ahal izateko lorpen-adierazleak ezartzen ditugu. Era berean, ekintzak dinamizatzeaz eta helburuen jarraipena eta azterketaz arduratuko diren pertsonak izendatzen ditugu, eta horrekin batera, epekatzea, koordinatzeko era edo beste edozein prozedura adierazten dugu

Elkarbultzaren Behatokia izango da Ikastetxearen Urteko Planeko elkarbultzarako helburuak eta ekintzak formalki proposatzeko ardura izango duen organoa.

Ekintzak garatu ondoren, urteko helburuak aztertu eta lorpen mailaren ebaluazioa egiten da, erreferentziatzat dagozkien adierazleak hartuta. Ebaluazio hori, dagozkion ondorio eta hobekuntza proposamenekin batera Ikastetxearen Urteko Planaren Memorian jasotzen da, eta kontuan hartzen dira hurrengo ikasturteko Ikastetxearen Urteko Planeko elkarbultzaren helburuak prestatzean.

7.1. Elkarbultzaren Planaren zabalkundea

Elkarbultzaren planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu behar dituzte. Horregatik:

Ikasturte hasierako bileretan, Elkarbultzaren Planaren alderdi garrantzitsuenei eta urteroko zehaztapenei buruz hitz egiten da familiarekin, ikasleekin, klaustroarekin eta guraso-elkartarekin.

Aldi berean, ikastalde mailako jarduerak planifikatzen ditugu Elkarbultzaren Planan jasotako hainbat alderdiri buruz eztabaidatzeko, hala nola: araudia, jardueraren protokoloak, prebentzio-izaerako jarduerak eta abar. Tutoretza Planaren jardueraren programaren barnean, Ikastetxeko Elkarbultzarako Planaren helburuak eta jardueraren ildoak aztertzen dira, eta baita urteko elkarbultzaren helburuak eta jarduerak ere, talde bakoitzean zertan lan egingo den berariaz zehaztuz.

Ikastetxeko Elkarbultzaren Plana eskola-komunitateko kide guztien eskura dago. Elkarbultzaren Plana eta bere laburpentxo bat Ikastetxearen web orrian eskegita dago, eta iritziak, iradokizunak eta proposamenak idazteko aukera ematen da.

7.2. Elkarbultzaren Planaren urteko zehaztapenaren zabalkuntza: elkarbultzarako helburuak eta ekintzak, eta ebaluazioaren emaitzak.

Elkarbultzaren Planaren urteko zehaztapena urteko elkarbultzaren helburuen bidez egiten da, eta horiek Ikastetxeko Urteko Planan sartzen dira. Horrela, Eskola Kontseiluak edo OOGk onartu ondoren, eskola komunitateko organo eta alderdi guztiei zabaltzen zaie gainerako helburuekin batera.

Elkarbultzaren Planaren urteko zehaztapenaren aurkezteko modua honako hau izaten

da. Tutoreek, adibidez, tutoretza-saio bat eskaintzen diote ikasleen plana ezagutarazteari, informazioa adinari egokituz eta dinamika egokiak erabiliz; klustroari ikastetxeko elkarbitzaren arduradunak aurkezten dio; familiei ikasturte-hasierako bileretan, tutorearekiko bileretan edo gutun baten bidez.

7.3. Hezkidetzaren eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Planaren zabalkuntza

Dokumentu hau ere hezkuntza-komunitateko kide guztiei ezagutarazi zaie, arreta berezia jarritz Hezkidetzaren eta Genero Indarkeriaren prebentziorako Gida Planean jasotzen diren alderdietan. Zabalkuntzarako Elkarbitzaren planerako aipatutako baliabide berdinak erabiltzen dira.

8. Elkarbitzaren Planaren jarraipena eta ebaluazioa

8.1. Elkarbitzaren Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Elkarbitzaren Behatokiak gutxienez lau urtetik behin Elkarbitzaren Planaren ebaluazioa egiten du. Ikastetxeko zuzendaritzak eta Elkarbitzaren Behatokiak alderdi hauek aztertzen ditu: Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Elkarbitzaren Plana, Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna, Elkarbitzaren Planaren ezarpen-maila eta arrazoiaren azterketa, Hezkuntza komunitatearen ezaugarri eta beharrekiko Planaren erantzun-maila eta Ikastetxeko elkarbitzaren bilakaera. Hiru hilabetetik behin ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko elkarbitzaren eten duten egoeren berri emango dio Elkarbitzaren Behatokiari, eta baita hartutako neurrien berri ere. Behatokiak bildutako datuen ikerketa egiten du urtero. Datuak aztertzen ditu, honako hauek balioztatuz: elkarbitzaren eten duten egoera-kopuruaren bilakaera eta egoera mota; hartutako neurri-mota, eta eginiko esku-hartzeak. Ikasturteen arteko azterketa konparatiboak egiten dira eta, joerak antzemateko. Elkarbitzaren Plana edo hura garatzen ari den ere berrikusteko dagozkion proposamenak aurkezten dituzte azterketak ikusita.

8.2. Elkarbitzaren Planaren urteko zehaztapenaren ebaluazioa

Ikastetxeko zuzendaritza arduratzen da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudatzeaz, eta Elkarbitzaren Behatokiari ematen dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratzen da.

Ikasturteko memoria proposaturiko helburuen lorpen-maila aztertzen da, ondorioak ateratzen dira, eta hurrengo ikasturteko helburuak ezartzeko oinarri

izaten diren hobekuntza-proposamen berriak sortzen dira, hala nola, ikasturteko elkarbizitza-egoerari buruzko datuak; antolaketa, curriculum eta funtzionamenduaren inguruko proposamenak; Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren alderdiren bat aldatzeko proposamena edo Elkarbizitzaren Behatokiari buruzkoa. Lorturiko helburuak Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren historikoan erregistratuko dira, dagokion helburu orokorrarekin batera.